





1. AURKEZPENA

GASTEIZ, HEZIKETARAKO ESPAZIO GISA izeneko heziketa-programa Udalak taxutu du, honako asmo honekin: hiria ezagutzeko **OBJEKTU** gisa, ikasketarako **TOKI** gisa eta hezkuntzako **ERAGILE** gisa baliatzea.

Hezitzaile izateko, hiri batek, zeregin tradizionalak ez ezik, nahita eta arduratsu bere gain hartu behar ditu beste zeregin hauek ere: «bere herritar guztiak hezte, sustatzea eta garatzea, haur eta gazteengandik hasita» (Bartzelonako Deklarazioa, Hiri Hezitzaileen I. Biltzarra, 1990).

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak, programa honen bitartez, hiriaren eta eskolaren arteko elkarrekintza-dinamika sortu nahi du. Hartara, Gasteizko herritarrei (eskola-umeengandik hasita) aukera eta bultzada emango die, hiria ezagutu eta bizi dezaten.

Programaren giltzarrietako bat dira **HISTORIA ETA ARTE IBILBIDEAK**.

Ibilbidea, izatez, **hiria ezagutzeko jarduera bat** da, eta honako **helburu** hauek ditu:

- Gasteizko toki eta eraikin adierazgarrietan barrena ibilbide didaktikoak eginez, bertatik bertara ezagutzea garai historiko jakin baten ezaugarriak eta garai hark gaur egungo hirian duen eragina.
- Hiriaren ezagutza praktikoa sustatzea. Hartara, hiriak eskaintzen dizkigun baliabide eta zerbitzuak ezagutu eta erabiltzeko behar den informazioa ematen zaie ikasleei.
- Ibilbidearekin lotura duten emakumeak ikustaraztea; aitortzea eta balioan jartzea historian, kulturen, artean eta politikan egin duten ekarpena.
- Ikasleen artean, ingurunea, oro har —eta historia eta arte ondarea, bereziki— balioetsi eta errespetatzeko ohiturak eta jarrerak sustatzea.

Programa honetako baliabide didaktikoetako bat **Irakaslearen koaderno**a da. Ibilbidean parte hartuko duten irakasleek koaderno honetan aurkituko dute ikasgelako jarduera prestatu eta osatzeko behar duten informazioa. Hala, ikasleek modu aktiboan parte hartzea eta jarduerari etekin handiagoa ateratzea errazten da.



Hurrengo taulan, **programaren ezaugarri nagusiak** ageri dira.

Ibilbidea	Hartzaileak	Baliabide didaktikoak	Iraupena	Taldea bitan banatuko da kopuru honetatik aurrera*:
Lantegiak Santa Maria katedralean	DLHko 1. mailatik 5.mailara	Maila bakoitzean Power Point bat. Monitore-gidaria	2 ordu	Ez da banatzen
Gasteizko ahozko memoria, 1940-1965	DLHko 4. maila	Power Point, argazkiak. Monitorea eta adineko pertsona boluntarioak	Ordubete	Ez da banatzen
Udala	Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a	Unitate didaktikoa, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	Ordubete eta 30 minutu	26 ikasle edo gehiago
	HHI eta helduen taldeak			
Erdi Aroko Gasteiz	Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a	Unitate didaktikoa, DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	21 ikasle edo gehiago
	DBHko 1. zikloa			25 ikasle edo gehiago
Santa Maria katedralera bisita	Lehen Hezkuntzako 6.a	DVD, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	Ordubete eta 15 minutu	27 ikasle edo gehiago
	DBH			
San Pedro Eliza	HHI eta helduen taldeak	Irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	Ordubete eta 30 minutu	Ez da banatzen.
	DBH, DBHO, HHI eta helduen taldeak			
Artxiobak ezagutzea	DBH, DBHO, HHI eta helduen taldeak	DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	15 ikasle edo gehiago
Idazketa eta idatzitakoa. Artxiobak	DBH, DBHO, HHI eta helduen taldeak	PPT, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria	3 ordu	15 ikasle edo gehiago
Gasteiz Neoklasikoa	DBHko 2. zikloa	Unitate didaktikoa, DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	21 ikasle edo gehiago
	HHI eta helduen taldeak			25 ikasle edo gehiago



XIX. mendeko zabalgunea	DBHko 2. zikloa	Unitate didaktikoa, DVDA, irakaslearen koadernoak, ikaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu	21 ikasle edo gehiago
	HHI eta helduen taldeak			25 ikasle edo gehiago
Santa Maria Katedrala: argiaren elizpea	DBH, DBHO eta beste talde batzuk	Monitore-gidaria	Ordubete	Ez da banatzen
Ikustarazi beharreko historia: emakumeak Gasteizen	DBHko 2. zikloa, DBHO, HHI eta helduen taldeak	Ikus- entzunezko materiala, Irakaslearen koadernoak. Monitore-gidaria.	2 ordu.	21 ikasle edo gehiago

**Zehaztutako ikasle-kopurutik aurrera, bi taldetan banatuko dira ikasleak. Kasu horretan, irakasleaz gain, bigarren arduradun bat etortzea gomendatzen da, azpitalde baten ardura har dezan.*

2. ANTOLAKUNTZAKO ALDERDIAK

Jarraian, irakasleek ibilbidea prestatzean kontuan izan beharreko zenbait alderdi aipatuko ditugu:

Irakasleen parte-hartzea

Parte hartzen duen irakasleak honako zeregina izango du: ibilbide osoan zehar ikasleek jokabide egokia eta arreta izan dezaten zaintzea. Era berean, irakasleak oso parte hartze garrantzitsua izango du jardueran. Beharrezkoa deritzon aldiro, esku hartuko du, monitorearen azalpenak osatzeko edo azalpen horiek taldearen ezaugarriari egokitzeko.

Ikasle-kopurua zenbateko jakin bat baino handiagoa baldin bada (ikus aurreko orrialdeko taula), bi azpitalde egingo dira. Kasu horretan, gomendagarria da **bigarren irakasle bat** etortzea. Modu horretan, irakasleetako bakoitzak azpitalde baten ardura hartuko du.

Ikasleentzako oharra

Ezinbestekoa da ikasleak jabetzea ibilbidea ez dela txangoa, hezkuntza-jarduera baizik.

Halaber, garrantzitsua da ikasleek arropa egokia janztea, bereziki egun hotz eta euritsuetan, osterantzean zaila baita ibilbidea normaltasunez egitea.

Jarduerara etortzea

Jarduerara etortzerik ez baldin baduzue, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari garaiz jakinarazi behar zaio, jarduera-eguna baino hiru egun lehenago gutxienez. Jarduerara arrazoibide egokirik gabe huts egiteak jarduera beste egun batean egiteko aukera kenduko du. Gainera, hurrengo ikasturteetan jardueratik kanpo uztea eragin dezake.

Garraioa

Ikastetxeek [garraiorako diru-laguntza](#) eskatu ahal izango dute, gastuen zati bat ordaintzeko.



3. HELBURUAK

Ikus dezagun, segidan, San Pedro ibilbidearekin zer helburu lortu nahi diren:

- San Pedro elizaren ingurune fisiko eta historikoa ezagutzea, XV. mendearen bukaeran Gasteizko parrokien kabildoak eratzten zuten erlijiozko eraikinen artean.
- Tenpluak historian izan dituen eginkizun nagusiak ezagutzea.
- Tenpluaren portadak eta haien ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- San Pedro elizako gurutzadura, korua eta kapera nagusiak eratzten dituzten elementuak ezagutzea.
- San Pedro elizaren kanpoaldea eta barrualdea osatzen duten arte-estiloetan sakontzea.
- Historian izan diren arte estiloen ezauguera sustatzea ikasleengan.
- San Pedro elizak —bereziki— eta hiriak —oro har— duten historia- eta arte-ondareari buruzko balioespena eta errespetua eragitea.

4. EDUKIAK

Honako hauek dira ibilbidearen ardatzak:

- San Pedro eliza sortu zen garaiko **ingurune historikoa**.
- Historian zehar tenpluak izan dituen **eginkizunak**.
- **Gotikoaren eta tenpluko arte-estiloen** ezaugarriak.
- San Pedro eliza, **Gasteizko hirigune historikoko eraikinen artean**.
- Tenpluari egin zaizkion **aldaketak**.
- Tenplua eratzten duten **eginkizun jakineko eta apaingarritarako elementuak**.

5. METODOLOGIA

Jarduerak hainbat zati berezi ditu:

1. **Ibilbidea egin aurreko jarduerak.** Ikasgelan egingo dira, irakasleek dinamizatuta.
2. **Ibilbidea,** San Pedro elizaren **kanpoaldetik eta barrualdetik,** monitore-gidariak dinamizatuta.



3. Ibilbidea egin ondorengo jarduerak. Ikasgelan egingo dira, irakasleek dinamizatuta.

Ibilbidean zehar egingo diren ekintza eta jardueren bidez, ikasleen pentsamendu sortzailea eta kritikoa sustatuko da. Orobat, gogoeta, analisisa eta ordezeko aukeren bilaketa eragingo die.

Ibilbidean, parte-hartzaileen arteko **harreman-prozesu** egokia **bultzatuko da**. Hartara, indartu egingo dira taldearen kohesioa, ikasleen parte-hartze aktiboa, errespetua eta talde-lana.

Ibilbidearen edukiak egokitzen saiatuko da monitore-gidaria, parte-hartzaileen ezagutzen mailaren arabera. Era berean, talde bakoitzaren ezaugarrietara egokituko du ibilbidea. Behar izanez gero, esku hartzeko estrategiak aldatuko ditu.

Ibilbideak **ikaskuntza praktiko eta orokorra dakar**, hiriaren bizitza bera ere halakoxea baita. Jardueran sartuta daude alderdi kognitibo, estetiko eta etikoak (ikasleek ezagutzak, trebetasunak, ohiturak eta balioak bereganatzea). Horrenbestez, gizartean parte-hartze kritiko eta eraikitzailea izatea sustatzen da. Asmoa da parte-hartzaileek ardura har dezatela euren ingurunearekiko, ondarearekiko eta kontserbazioarekiko.

6. IBILBIDEA EGIN AURREKO JARDUERAK

Gomendatzen dugu irakasleak ikasgelan azal ditzala ibilbidean garatuko den gaiaren edukirik garrantzitsuenak. Horrela, errazago ulertuko dute eta hobeto aterako diote probetxua jarduerari.

Jarraian, irakasleei ibilbidea prestatzeko lanetarako baliagarri izango zaizkion hainbat ariketa zehaztuko dugu.

LEHENENGO ARIKETA

Hiribilduarentzat garrantzi handia izan zuen une batean eraiki zuten San Pedro eliza. Inguruko erresumak elkarren aurka borrokan ari ziren garai hartan, lurralde estrategikoak konkistatu nahian. Horrela, euren botere ekonomikoa eta politikoa handitu nahi zuten.

- 1.1. Bila eta idatz ezazu zer gertaerak markatu zuen tenplua eraiki zuten unea, eta zein izan ziren hirian egin zituzten aldaketak.

BIGARREN ARIKETA

XV. mendearen bukaeran, bost eliza gotikok eta bi komentuk osatzen zuten parrokiaren kabildoa:

- 2.1. **Talde-lana eta bateratze-lana:** lantalde bakoitzak kabildoa eratzen zuten komentu eta elizetako bat ikertuko du. Non dagoen eta zer ezaugarri nagusi dituen azalduko du..



HIRUGARREN ARIKETA

Auzoetan, gremioetan eta kofradietan taldekatzen ziren hirietako biztanleak.

3.1. Azaldu itzazu, laburbilduz, taldekatze mota bakoitzaren berezitasunak..

LAUGARREN ARIKETA

San Pedro eliza tenplu gotikoaren adibide nabarmena da.

4.1. Bila eta idatz itzazu arte gotikoaren ezaugarri nagusiak, eta arte horren barruan izan diren estilo nagusiak.

7. IBILBIDEA

- **San Pedro elizaren elizpea**

Monitore-gidariak elizako sarbidean egingo dio harrera ikasle-taldeari.

Lehendabizi, monitore-gidariak ibilbidea aurkeztuko die ikasleei. Metodologia azalduko die, eta ikasleen ezagutza-maila zein den ezagutzen saiatuko da, ibilbidearen edukiak maila horretara egokitzeko.

Ondoren, tenpluaren ingurune fisikoa eta historikoa azalduko ditugu, eta tenpluak historian izan dituen eginkizunak. Halaber, estilo gotikoaren ezaugarri nagusiak azalduko dira; baita elizpearen bereizgarriak, ikonografiaren eginkizunak eta eskultura gotikoaren berezitasunak ere

- **Elizaren kanpoaldea**

Taldeak kanpoko alde guztiak ikusi ahal izango ditu, eraikinak bizitako aldaketak ikusteko eta eraikuntza gotikoen egiturazko ezaugarriak ezagutzeko; baita estilo horretako eraikinen ezaugarri apaingarriak ere.

- **Hegoaldeko elizpea (Pedro Egaña kalea)**

Egungo sarbideko portadan elizak dituen ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu. Era berean, sakristiaz eta dorreaz hitz egingo dugu.

- **Mendebaldeko fatxada (Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea)**

Elizak egun dituen defentsa-eginkizunerako elementuak deskribatuko ditugu.

- **Iparaldeko fatxada (San Pedroko pasabidea)**

Tenpluaren iparraldeko portadaren xehetasun bereziak azalduko ditugu.

- **Burualdearen kanpoaldea (Errementari kalea)**



Tenpluaren kanpoaldetik ibiliz, San Pedro elizako hormetako ezaugarriak eta elementuak ikusiko ditugu.

- **Ekialdeko elizpea edo elizpe nagusia (Errementari kalea)**

Tenpluko antzinako sarbidea. Portada gotiko eskultorikoen eginkizun didaktikoa eta apaingarria nabarmenduko ditugu.

- **San Pedro elizaren barrualdea**

- **Elizako gurutzadura**

Hortxe azalduko ditugu elizaren ezaugarri nagusiak eta gurutzaduraren apaindura. Orobat, tenplu osoan diren beirate apaingarriak aipatuko ditugu.

- **Kapera nagusia**

Kapera horretan diren leinu gasteiztarren hilobiak eta elementu heraldikoak deskribatuko ditugu.

- **Graziako Andre Mariaren abside-kapera**

Hor, Graziako Andre Mariaren tailu gotikoa nabarmenduko dugu (Erdi Aroko izena gorde duen bakarrenetakoa). Halaber, Alaba familiaren hilobiak ikusiko ditugu, eta, orokorrean, ehorzlekuek zituzten eginkizun eta egiturei buruz mintzatuko gara.

- **San Isidroren abside-kapera**

Kapera horretan dago Garcia Martinez de Estellaren hilobia. Bertatik, kapera nagusian dauden beste bi lan ikusi ahal izango dugu: Pedro Martinez Alabaren hilobia (brontzez egina) eta Juan Ruiz de Bergararen eskultura, estilo errenazentistakoa eta alabastroz egina.

- **Doloreetako abside-kapera**

Hor, Maria Martinez de Orraindiren hilobiaren berezitasunak azalduko ditugu.

- **San Antonio Paduakoaren kapera**

Maria Martinez de Orraindik fundatu zuen. Haren hilobiaren gainean zegoen arku, gaur egun, biltzar-gelako atearen markoa da.



- **Goiko korua**

XV. mendearen bukaeran eraiki zuten arren, apaingarritzat dituen beirateak modernoak dira. Hor deskribatuko ditugu, orobat, balaustrada eta 1925eko organoa, 1781az geroztik egondakoaren ordez jarritakoa.

- **Beheko korua**

Gangaren berezitasunak azalduko ditugu, eta, ildo horretan, ganga-mota ezberdinen ezaugarriei buruz hitz egingo dugu.

- **Martinez de Salbatierratarren kapera**

Gaur egun, elizako sarbidea da. Hor egon ziren Erregeen erretaula eta hura ixten zuen burdina-hesia. Gaur egun, bertan dago Salbatierratarren leinuaren hilobia, elizan diren hilobien artetik garrantzitsuena, kalitate artistiko handia baitu.

- **Bataiategiko kapera eta Erregeen erretaula**

Hor daude gaur egun Erregeen erretaula eta bataiategia. Elizako sarbidea izan zen, elizpe gotikoa eraiki zuten arte.

8. IBILBIDEA EGIN ONDORENGO JARDUERAK

Webgune honetan **ikaslearen koaderno didaktikoa** duzu eskura. Bertan, ibilbideari buruzko informazioa eta ikasgelan egin beharreko ariketetarako proposamenak dituzue.

9. EBALUAZIOA

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak hainbat tresna prestatu du, Historia eta Arte Ibilbideen Programa baloratzeko. Horretarako, taldearen arduradunaren iritzia bereziki garrantzitsua da.

Horretarako, **monitoreak ebaluazio-fitxa bat emango dio irakasleari** ibilbidearen bukaeran betetzeko.

Bertan, ibilbidean gertatutako edozein gorabehera eta programa hobetzen lagunduko duten iradokizunak egitea eskertuko genuke.